

ALC^K

AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER
for Social and Political Studies



ETORKIZUNeko LIDERRAK PRESTAKUNTZA PROGRAMA 2019/2020

PROGRAMA FORMATIVO LÍDERES DEL FUTURO 2019/2020

IZENBURUA: BELAUNALDI BERRIAK EUSKAL IDENTITATEA ETA
GIZARTE BALIOAK SUSTATZEN

EGILEA: MARTIN SCHÄFER UNZUETA

Belaunaldi berriak euskal identitatea eta gizarte balioak sustatzen

Belaunaldi berriek zelan bultzatu behar duten euskal kultura azaldu baino lehen, zeri deitzen diote euskaldunek Euskal Kultura?

Euskal Herrian, euskal kultura interpretatzeko bi modu dituzte:

Alde batetik, euskal kulturaren inguruan egiten diren emankizunak daude: esate baterako, euskal kirolak (harrijasotzaileak, eskupilota, euskal dantza) edota hizkuntza, hau da, euskera ardatz duten beste ekintza batzuk, bertsoaritza eta euskal literatura, kasu. Bestetik, kulturak gizarte baten ezaugarri diren berezitasun espiritual, material, intelektual eta afektiboak ere biltzen ditu, baita ezaugarri hauek guztiak sustatzen eta garatzen dituzten balioak ere. Euskal identitatea sortzen eta definitzen dituzten balioak. Balio horiek iragan belaunaldiek transmititu izan dituzte eta horregatik mendez-mende izan dira euskal gizartearen garapenaren ardatz.

Lan hau belaunaldi berriek euskal kultura balioen ikuspuntutik sustatu beharreko ikusmolde eta ekintzei buruz eta beraiek dituzten garapen aukerei buruz datza.

Denborarekin gauzak aldatzen doaz, bizitza garatzen doa eta garai berrietara egokitzen den bezala, balioen mundua ere, -balioen ezagutza eta garapena- asko aldatu da azkenaldi honetan. Aurreko belaunaldiek euskal kulturaren balioak eta identitatea babestu, indartu eta garatu egin dute. Garapen hori enpresa munduan ere ikusi daiteke, esate baterako Mondragon Kooperatibaren sorrera ekarri zuena. Mondragon Kooperatiba 1956. urtean sortu zen eta gaur egun 266 erakundek osatzen dute. Mondragon Kooperatibak ezaugarri bereziak dituen identitate sendoa dauka, eta nolabait, euskal identitate hori sustatzen eta garatzen du. Esate baterako, bere barnean batzen diren erakunde guztiak balioa berdinekin lotuta daude. Hauexek dira Mondragon Kooperatibako erakundeen balio nagusiak:

- Lankidetzak: Jabe eta protagonistak.
- Partaidetza: Gestiorako konpromisoa.
- Gizarte erantzukizuna: Aberastasunaren banaketa solidarioa.
- Berrikuntza: Berritze etengabea.

Halaber, Xabier Sotilek dioen moduan, ez dugu gure belaunaldi honen garapenean bakarrik pentsatu behar, baizik eta hurrengo belaunaldiei utzi nahi diegun ondarean

ere pentsatu behar dugu. Balio hauekin definitu egin da eta definitu dute betidanik euskal kultura. Horretaz gain, zelan definitu daiteke Euskal Kultura garatzen duen pertsona bat? Atzerritarrek edo kanpotarrek euskal enpresa munduan ari diren eragile guztiak antzeko ikuspuntu batetik definitu dituzte beti: lan asko egiten dutela, kalitatea beti dagoela enpresen ardatzean, ematen duten hitza bete egiten dutela, esparru sozialeko ekintzetan parte hartzen dutela eta euskal enpresen helburuen artean gizartearen garapenaren helburua dagoela.

Euskal balioen kultura zelan definitzen duten oso garrantzitsua da, jakina, baina horrek besteko garrantzia du lurraldeko kideak, herritarrak, zelan ikusten eta definitzen duten.

Hortaz gain, ekonomiaren garapena nola egiten den ere bada kultura. Ekonomia guztiak kultura baten inguruan sortzen dira, horregaitik ekonomiaren garapena lurraldearen kulturaren ezaugarrien menpe dago, menpe, zentzu onean. Ez da berdin Txinan negozioak egitea edo Indian; nahiz eta lurralde biak neurrietan antzeko garapen ekonomikoa daukaten, negozioak egiterakoan herrialdeko kulturak oso inpaktu handia dauka ekonomiaren garapenean.

Euskal ekonomiarekin gauza bera gertatzen da, euskal ekonomia kulturari atxikita dago. Bata garatzea bestea garatu gabe ia ezinezkoa litzateke, elkarren pare joan beharko lukete. Euskal Herriko ekonomia ikerketan, garapenean eta berrikuntzan oinarritu izan da, baina beste ekonomiengandik bereiztu egin da, nagusiki kulturagaitik. Ekonomiaren oinarriak eta garapenak ez ezik, kulturak berak ere kokatu gaitu lehenengo postuetan Eurostateko estatistika ugarietan.

Esan daiteke, ekonomia ez ezik, egin diren politikak eta gizartea bera ere izan direla kulturaren bultzatzaileak Euskal Herrian. Eta alderantziz ere esan daiteke, hau da, kultura bera izan dela hiru arlo horiek lotu edota kohesionatu egin duen elementua. Haien artean kohesio puntu asko aurkitu daitezke, eta hiru arlo horietan kultur kohesioa sortzen denean euskal kultura askoz ere gehiago bultzatzen dela.

Bestalde, Euskal Herriko ekonomia nazioartean ere presente dago, Espainiako esportazioen %10 Euskal Herriaren esku daude. Euskal Herriko enpresak betidanik jokatu dute nazioarteko mailan. Nazioarte maila honetan parte hartzeak euskaldunak beste hainbat kulturen aurrean jarri ditu, eta ezinbestean ikasi egin behar izan dute besteen balore sistema eta ikusmolde desberdinak ulertzen. Horrela bada, harreman horien ondorioz euskaldunak beren kultura aberasten eta indartzen joan dira. Eta esan daiteke, alderantziz ere gertatu dela:

Euskaldunek erroak hartu baitituzte beste herrialde batzuetan: zenbat Euskal Etxe dituzte munduan zehar? 195 daude erregistratuta Euskal Etxeen web orri ofizialean. Euskal Herriak nazioarte mailan daukan eragina sekulakoa da, duen biztanleria ikusita (2,3M biztanle), eta portzentaiari erreparatuz.

Internazionalizazio horietan Euskal Kulturak bere eragina ere izan du, ez bakarrik kanpoan egindako lanagatik, baizik eta Euskal Herrian bertan sortutako enpresen eredu eta identitateagatik ere. Euskal Herriko enpresagintzan ikusgarri egin da-halan esan badaiteke- beraz, euskal kultura bera, eta hainbat esparrutan nabari da.

Bestalde, berezitasun espiritual, material, intelektual eta afektibo berriak lantzen eta garatzen ari dira belaunaldi berriak, hau da, kultura berria sortzen hasiak dira belaunaldi berriak. Demokraziak, digitalizazioak eta internetek izugarriko eragina daukate, nola ez, sortzen eta hazten dagoen gizarte berri honetan. Sare sozialek alde batetik, informazio asko ematen dute eta gaien inguruan askoz ere iritzi gehiago zabaltzen eta partekatzen dira, baina, aldi berean, neurri, pisu eta sakontasun handiko gaien inguruko ezagutza eta benetako ulermena mugatu egiten dute. Bestalde, sare sozialen mendekotasuna 16 eta 24 urte bitarteko gazteetan dauka eraginik handiena. Adituen arabera, gazte hauek dira mendekotasunean erortzeko arrisku gehien dutenak, eta hiru arrazoiengatik: inpulsiboak –emozioak dantzan- izateko joera dutelako, eragin sozial zabal eta hedatua lortzeko beharra dutelako, eta, azkenik, talde identitatea berrestearen beharra. Horrez gain, mendekotasunak beste ondorio kaltegarri batzuk izan ditzake gazteengan: antsietatea, depresioa, suminkortasuna, bakartzea, bizitza errealetik aldentzea eta familia harremanetatik erretiratzea, kontrola galtzea, etab.

Ikusi daitekeenez internetek, digitalizazioak eta sare sozialek inpaktu handia daukate eta are handiagoa izango dute etorkizunean. Espainiako datuak kontuan harturik, espainiarrak 5 ordu eta 18 minutu igarotzen dituzte egunero Internetera konektatuta. Ordu bat eta 39 minutu ematen dute sare sozialetan, eta ia 3 ordu ematen dute telebista aurrean. Musikarekin igarotzen dute denbora gutxien, 42 minutu soilik igarotzen baititute streaming bidez entzuten. Euskal Herriko datuak ez ditut. Espainiako datuak ikusita, esan genezake, beraz, handia dela internet eta sare sozialek duten presentzia egunerokotasunean. Honek ez du esan nahi itxaropena galduta dagoenik, etorkizuna ilun dagoenik; ez. Esan nahi dut, presentzia hori norabide jakin batean, helburu zehatz baterako egiten bada, eta euskal kultura ardatz duela, internet eta bere erremintak paper estrategiko garrantzitsuak joka ditzaketelako baizik.

Horretaz gain, beste herrialde eta kultura batzuekin lotzen gaituzten erreminta horiek (internazionalizazioak ere) badaukate bere erronka propioa. Hau da, internetek kulturen daukan eragin handia, globalizazioak ere badaukala. Beti ez da positiboa, ez eraginkorra. Izan ere, batzutan, politika globalek edo nazioarteko negozioak beste kultura batzuk dituzten erronkeei aurre egiten diete, eta batzutan nahitaez, euskal kultura albo batera uzten dute.

Euskal Herriko kulturen badaude hainbat elementu bereizgarri, eta ezaugarri horietan kanpoko bestelako ezaugarriek nolako eragina izango duten aztertu eta baloratu behar dira. Horregaitik, belaunaldi berrien esku dago euskal kultura ezaugarri berezi horiek zelaz garatuko diren, Euskal Herriko enpresetako identitatean.

Gaur egun, oinarri sendoetan errotutako kulturen ezaugarri horiek hainbat modutan sustatzen dira eta modu horiek enpresa desberdinetan ikus daitezke; halere, Euskal Herriko gizartea eta orohar mundua aldatuz doan heinean, sustatzeko ondo kohesionatzen duten modu berriak ere topa daitezke.

Euskal kulturaz ari garelarik, garrantzitsua da gai honi hausnarketarako eta ikerketarako tokia ematea. Gizarteak aurrera egingo badu kultura honetan oinarriturik, ezer baino lehen daukan balioa nabarmendu behar da gizartearen aurrean; existitzen denari balioa eman. Horretarako Kulturen balio hori komunikatzen, gizarteratzen jakin behar da. Daukanetik hasita eta gaitasun komunikatiboak ondo erabiliz, euskal kultura horrek aurrerantz egin dezake bere bidean. Gaitasun komunikatiboek berebiziko garrantzia dute, beraz, Kulturen transmisioan eta garapenean. Eta komunikazioan ezinbestean agertzen den elementu inportante bat harremanak nola eraikitzen diren da. Azken baten komunikazio hitzaren jatorrian, konpartitu hitza aurki daitekeelako. Nola komunikatzen garen, nola konpartitzen diren ideiak; edo gauza bera dena nola eraikitzen diren harremanak? Gai inportantea. Zeren ez baita gauza bera informatzea eta komunikatzea; informatzeak (internet, sare digitalen edota liburuen bidez) konklusio batera garamatza, baina komunikatzeak, ezagutu eta hausnartutako gai bat konpartitzen ari garen neurrian, ekintzetara eramanez. Hizkuntza da komunikazio sistema eta berebiziko garrantzia du hizkuntza bat ondo ezagutu eta erabiltzea. Euskal Herriaren kasuan, euskararen ezagutza eta erabilera egokia ezinbestekoa da transmititzeko eta etorkizunean eraiki nahi dena pentsatzeko eta ekintzetara eramateko. Konfuziok esaten zuen bezala: "Hizkuntza zehaztasunik gabek baldin bada, ez da pentsatzen dena esaten. Esaten dena eta pentsatzen dena ez badira kontu bera, ez dago benetako lanik. Benetako lanik gabe, ezin loratuko dira artea, morala eta justizia. Horra, bada, zergatik hobetu behar duzuen hizkuntza. Nazio bat gobernatzea baldin bada auzia, hizkuntzaren zehaztasuna da garrantzitsuena».

Baina Euskal Herrira etorrita, hemen ere badira hizkuntzaren, pentsamenduen eta harremanen nolakotasunari garrantzia handia eman izan diotenak, Jorge Oteiza, kasu; eta ematen diotenak, tartean Koldo Saratxaga.

Bestalde Euskal Kulturarentzat lagungarri izango diren lege eta arau berriak ezarri daitezke. Azken hamarkadetakoa den gai bat, adibidez: generoaren berdintasuna. Euskaldunak landu nahi duten balioetako bat bada, legedietan generoaren berdintasunari laguntzen dieten legeak sortu beharko dituzte. Era berean, aberastasunaren bidezko banaketa sustatu nahi bada, zer egin beharko litzateke zerga mota desberdinekin, nola arautu daitekeen errenta aitortpena erabiliz. Azken adibide honekin lotuta, aurten Bizkaiko Foru Aldundiak galdera bat egin zion bere buruari: Errentaren aitortpenean aberastasun handiko pertsona edo entitateei portzentaia handiagoa eskatu behar zaie? Horrela egiten bada, zer egingo dute norbanako edota entitate aberatsek bere dirua beste nonbaitera eramaten badute? Eta jaitzi egiten bada, eta ondorioz aberats gehiago erakartzen badira (Madrilen ezarrita dagoen sistema), eta horrela diru gehiago Bizkaitarrentzat biltzen badute? Lehenengo proposamenan, etika jartzen da aurretik eta aberastasunaren bidezko banaketaren aldeko neurriak ezarri; bigarren neurrian, bizkaitarren ongizatean ere pentsatzen da, izan ere, nahiz eta aberastasun handidunei mesede egiten zaien, bizkaitarrentzako hurrengo urteetarako diru gehiago egongo da eremu garrantzitsuetan inbertitzeko, adibidez, lehen aipatutako genero berdintasunean. Beraz, nahiz eta lege edo erabaki batzuk lehen begi-kolpean nahiko sinpleak izan, izugarritzko eragina daukate sortzen eta garatzen diren giza eta gizarte balioetan, eta ondorioz, euskal kulturaren. Legeak eta erabaki politikoak beraz, zeharo garrantzitsuak dira kulturaren eta gizarte balioen garapenean. Erakundeen gobernantzak zeharo garrantzitsuak, beraz.

Gauza bera gertatzen da zerga ordainketa eremuan. Espainiar estatuan zergak gastu moduan ikusten dira, kultura ideia horren baitan garatu delako. Alemanian alderantziz, zergak askoz ere altuagoak dira, eta halan eta guztiz, alemaniarren ikuspuntua oso diferentea da. Alemaniarrek, zergak eta gastu publikoak gizartearen garapenerako ezinbesteko tresna bezala ikusten dituzte. Zergak, haien sistema publiko egonkorra eta gizartearen ongizate orokorra sustatzen duten tresna gisa ikusten dituzte. Tresna honek gizartearen barnean ondo errotutako balio zehatz batzuk ditu azaleratzen: enpatia, elkarbizitza, altruismoa eta kontzientzia soziala.

Bestalde, badaude beste modu batzuk gizarte balioak sustatzeko eta garatzeko. Inbertsioa da haietako bat. Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta beste entitate publiko-pribatuek haien inbertsioak eta baliabideak non eta zertan kokatzen dituzten,

horrek adieraziko du gizarte balioen garapenen norabidea.

Gizartea bera ere bada beste aldaketa motor bat eta batzutan gertatzen diren salbuespeneko egoerek ere norbanakoaren pentsamenduak aktibatzen dituzte, eta beraz, norberaren giza eta gizarte balioen garrantziaz hausnartzeko parada eman dezakete. Adibidez, Covid-19a izan da egoera berezietako bat. Argi dago, krisi honen ostean gizarteak beste ikuspuntu batzuk dituela garapenari buruz. Esate baterako, osasun eta ikerketa esparruetan, gizarteak nahiz eta betidanik jakin duen oso garrantzitsuak direla, krisi hau heldu arte ez gara horrenbeste jabetu duen garrantziaz. Seguraski, politikan, eta tartean datorren urteko aurrekontuetan eragina izango du, eta askoren gizarte ikuskeran indarra hartu duen ikuspegi honek solidaritatea eta kontzientzia soziala sustatuko ditu. Gizarte balio hauek inoiz baino sustraituagoak eta egonkorragoak dira gaur egun, eta seguruenik Euskal Herriko politikan, gobernantzan ez ezik, beste herrialdeetakoetan ere eragin handia izango du.

Hau aipatuta, balioen etorkizuna garatzearen ideiarekin hasi baino lehen, Euskal Herriaren historia ezagutu eta ulertu egin behar da. Hau da, zelan eta nondik, zergaitik sortu diren existitzen diren balioak Euskal Herrian. Euskal gizartearen ikusmoldearen edota kosmogoniar, oinarrian nolako giza eta gizarte balioak izan dira, egitura politikoak, ekonomiak, auzolan sistemak, hezkuntzak etabarrek hartu duten forma hartzeko? Adibidez, zelan argudia daiteke espainiar estatuko autonomia askotakoek euskal herritarrak langile sendo eta fin moduan definitzen dituztenean? Zer dago oinarrian? Zein mundu ikuskerak eta erabakiek edota mugimendu sozialek sustatu dute, lana serio eta gizaki eta gizadiarentzako on diren helburu argiekin egitearen balioa Euskal Herrian? Seguraski hainbat lan eta ikerketa egingo ziren eta hainbat teoria egongo dira, eta teoria bakoitzak bere balioa eta egiaren parte izango du ziurrenik. Horregatik da zeharo garrantzitsua historiako gertakari, gobernantza moduak, legediak, gizarte antolamenduak eta abar zergatik, zertarako eta zelan sortu diren ezagutzea etorkizunari begira jartzen garenean.

Honekin, ez dut esan nahi iraganeko erabakiak eta aurrerapausuak bere horretan jarraitu behar dutenik Euskal Herriko etorkizuneko gizarte balioak sustatzeko. Izan ere, etengabe ari gara, zorionez, euskal balioez hausnartzen eta ñabardura gehiago antzemanaz, balioen sustraiei lur eta ongari berriak ematen. Horrela bada, iragana ezagutu behar da, euskal gizarte balioetan oinarrituta bizi garen gaur egungo gizarte hau ondo aztertzeko, eta aurrerantz nondik eta norantz jo behar den ikasteko. Baliteke inoiz, beste toki batzuetan bezala, seguraski asko hausnartu gabeko erabakiak hartu

izana, eta agian ez dakite ere zehatz mehatz zelako eragina izan duten Euskal Herriko gizarte balioetan. Horregaitik, belaunaldi berriek euskal kultura enpresetan sustatzeko, lehenengo iraganean izan zituen ezaugarriak ondo aztertu behar dira.

Juan Jose Ibarretxe Lehendakari ohiak dioen moduan, bost puntu garrantzitsu nabarmendu daitezke Euskal Herria garatzeko eta euskal gizartearen kultura sustatzeko:

- 1- Identitate nazionala
- 2- Lidergo publiko-pribatua.
- 3- Ekonomia errealekiko konpromisoa.
- 4- Ekonomiaren garapena, garapen sozial bidezko baten bitartez.
- 5- Autogobernantza

Ikusi daitekeen moduan, lehenengo puntua identitatea da. Identitatearen barnean daude gizarte balioak, eta gizarte balioak garatzean euskal identitatea garatzen da. Halaber, identitatea sustatzen ez bada, beste lau puntuak ez lukete oinarri eta indarririk izango. Eta euskal identitatea albo batera utziz gero, zer beste identitate hartuko genuke: espainiarra, frantziarra, globalizatua... bat ere ez? Azken finean, identitate edota identitate falta batetik sortzen dira gizakiaren pentsamenduak eta ekintzak. Identitate batek ematen dio forma eta kohesioa giza taldeari, gizarteari; oinarri garrantzitsua esparru guztietan armonikoki eta norabide jakin batean gizarte moduan aurrera egin nahi bada. Horrenbestez, identitatea bai edo bai euskal gizartearen garatuko dela jakinda, estrategikoki garatzea izango litzateke erabakirik zuhurrena.

Horregaitik, hain zuzen ere, ALCK egin duen Etorkizuneko Liderren programa bezalako ikastaroak oso garrantzitsuak dira. Ikastaroan Euskal Herriko historiari garrantzi handia ematen zaio eta asko ikasten da. Miren Azkaratek Euskal Kulturaren historian izan diren bilakaerak eta gaur egun etorkizunerako dituen erronkak azaldu ditu. Alex Botok, ingurumenari buruz aritu zen eta Juan Jose Ibarretxe, euskal kasuaz aritu zen, besteak beste. Programa honek Euskal Herriaren hainbat esparruetako historia eta garapena azaltzen ditu. Programa honek ikuspegi handiago eta sakonago bat ematen du, Euskal Kultura eta bere balioak ulertzeko. Beraz, Euskal Herriko Identitatea garatzeko, gazteriari informazio hau nola transmititu eta helarazi dakiokeen jakiteko, eta gazteengan hausnarketa berriak eragiteko balio du. Guztiz garrantzitsua da, beraz, Euskal Herriko historia esparru ezberdinetatik ikus eta hausnar dezaten, euskal gazteok ikasi, aztertzea eta gerobizitza esparruetara eramateko. Jakintza hau

zabaltzen ez bada, beste kultura eta balio batzuk ikasiko dituzte, edo kalterako dena, balioei ez diete inolako garrantzirik emango, eta beraz, euskal identitatea ilunean edo norabide argi gabe garatuko litzateke, eta identitate global batean urtu eta desagertuko litzateke.

Identitate Amerikarra, adibidez, da identitaterik eratuenetakoa eta munduan asko zabaltzen dena. American Dream, denok dakite zer den eta zertan datzan. Madrilerako joanez gero, Mc Donald's, Burger King, Coca-Cola enpresak ikusi daitezke. Haien identitatea American Dream-ean oinarrituta dago, haien marketing-ak edota publizitateak American Dream-a saltzen dute, eta gustatu ala ez, haien identitate urtua edo likidua eragina izan dezake balioetan oinarrituta ez dauden identitate askotan, eta esan bezala, munduan gehien hedatu eta zabaltzen den identitatea da. Bi puntu estrategiko oso garrantzitsuak ditu American Dream identitateak izan duen arrakasta izateko:

1. Identitate sinplea. Esan daiteke American Dream identitate sinple bat dela: Amerikar ametsa, Amerikako Estatu Batuetako herritarrek nahiz bertara joaten diren etorkinek euren bizi-proiektuak gauzatu eta bizimodu arrakastatsua lortu ahal izango dutela baieztatuz zabaltzen den ideia bat da. Ezerezetik abiatuz eta adonez jokatuz arrakasta lor daitekeelako ideia hau Ameriketako Estatu Batuetako liberalismo politiko eta ekonomikoan oinarritzen da. Ideia horretatik sortzen eta oinarritzen da haien identitatea. Sinpletasun hori, errazkerian oinarritzen den ideia hori kapitalismoarekin hain bateragarria delako, amerikar identitatea hedatzea eta munduan zehar zabaltzea oso erraza da.

- 2 Marketing-a. Amerikar ametsa Ameriketako Estatu Batuetatik kanpo saltzea oso erraza da. Hasteko, herrialde guztietan dagoelako jende asko ezerezetik hasi direnak, beraz, identitate hori garatzeko abiapuntuan dauden pertsonak edozein herrialdean daude. Horrez gain, dituzten enpresa multinazionalak amerikar ametsari buruz egiten duten Marketing-a eta munduko herrialde garrantzitsuenetan haien produktuak duten eragin bidez amerikar ametsa zabaltzea eta hedatzea erraza bilakatzen da.

Madril-eko Gran Vía kaleak amerikar ametsaren identitate gehiago dauka, Los Angeles-ek espainiar identitatea baino. Horregatik, ondo frogatuta geratzen da identitate propio, indartsua, irizpide eta norabide argiduna, eta estrategikoa garatzen ez bada, beste identitate batek hartuko duela zureak uzten dituen hutsuneak betetzeko.

Honek, euskal kulturaren eta gizarte balioei buruz ikasi eta aztertu eta gero, bigarren puntura eramaten gaitu: Euskal kultura (baita balioak ere) konkretatzea eta sailkatzea. Konkretatzeak eta sailkatzeak ez du esan nahi identitatearen edo kulturaren ezaugarri batzuk izendatu baino ez direla egingo, estrukturatu egingo direla baizik. Euskal identitatea definitu eta estrukturatu egin behar da, ezaugarri bakoitzari bere lekua eta garrantzia emanez. Baina euskal kultura ez bada konkretizatzen eta estrukturatzen, identitatean sakondu eta ikertu nahi denean orientazio bat edukitzea zaila izango da, eta horrez gain, sendotasunean ahuldu egingo da, eta horrenbestez, lehen aipatu dudan bezala, beste identitate batzuk ordezkatu eta hartu dezakete bere lekua. Nork egin beharko luke Euskal Identitatearen definizioa eta estrukturatzea? Proiektu sozial, politiko eta ekonomiko bat da, nolabait. Beraz, Gorka Espiauk daukan proiektuak garatzeko *Social Innovation Projects* metodologia izango litzateke egokiena, bertan gizarte arloan lan egiten duten agente gehienek ordezkari bat egongo litzatekeelako.

Proiektu sozial hau, noski, Eusko Jaurlaritzatik edo Euskal entitate publiko sendo batetik proposatu beharko litzateke, argi utziz, proiektu honetan arlo sozial, ekonomiko eta politikoko agente garrantzitsuenen ordezkariak garatuko luketena.

Garapen horretan, Euskal kultura eta identitatea definitzen jarraituko litzateke eta etorkizunean hartu beharko duen norabidea eta egin beharreko estrategiak ezarriko lirateke.

Digitalizazioa izango da puntu garrantzitsuenetariko bat –eta berari estu lotuta dagoen komunikazio eta harremanen eredia berriak-. Mundu digitalaren eraginez, garatzen dira gaur egun identitatearen ezaugarri asko. Gehienak identitatearen ezaugarri pertsonalak dira, baina Marketing-aren bidez eta dauden influencer pertsonaiak, bai norbanakoaren identitate eta balioetan baita gizarte balioetan ere, gero eta eragin handiagoa izango dute, beraz, ezinbestekoa da Euskal Kultura eta identitatea tresna digitalekin eta sare sozialen bidez ere egoki eta argi gizartera transmititzea eta zabaltzea.

Beraz, belaunaldi berriak euskal identitatea eta gizarte balioak sustatzeko proiektuaren puntu garrantzitsuenak laburbilduz, lehenik eta behin Euskal kulturaren historia hainbat esparruen informazioa belaunaldi berriei helduarazi beharko litzateke, komunikazioa puntu oso importantea izanik. Horrez gain, *Social Innovation Projects* proiektu metodologia erabilita, inpaktu sozio-ekonomiko handi bat izango lukeen

proiektua sortu beharko litzateke, Euskal kultura eta balioen historia kontuan izanik, arlo sozial, ekonomiko eta politikoko agente garrantzitsuenen ordezkariak garatuko luketena. Horretarako, beste identitateen ezaugarri arrakastatsuak kontuan eduki beharko lirateke. Amaitzeko, proiektuaren eta historiaren zabaltzea litzateke, eta horretarako nahiz eta internetetik kanpo aktibitate eta ekintza batzuk garatzeaz eta sustatzeaz gain, digitalizazioa erabili beharko litzateke proiektu honen inpaktua handiagoa izateko, eta beste identitateei hutsune hori ez uzteko.

DOKUMENTAZIOA – WEB ERREFERENTZIAK

ZuZeu. (2013, martxoak 14). 2020ko maiatzaren 15ean berreskuratua hemendik: <https://zuzeu.eus/euskal-herria/ibarretxe-nostalgiarik-gabe/>

Plan Ibarretxe. (s. f.). *Wikipedia-n*. 2020ko maiatzaren 15ean berreskuratua hemendik: https://es.wikipedia.org/wiki/Plan_Ibarretxe

Sagarzazu, J. (2019, azaroak 14). Ibarretxeren formula. *Berria*. Hemendik eskuratua: <https://www.berria.eus>

Martínez, L.M (2011ko ekainak 27), Juan José Ibarretxe: I + D + i + K.Nabarra [blog]. Hemendik berreskuratua: <https://nabarra.blogspot.com/2011/06/juan-jose-ibarretxe-i-d-i-k.html>

Iberdrola. (s. f.). 2020ko maiatzaren 20an berreskuratua hemendik: <https://www.iberdrola.com/compromiso-social/como-afectan-redes-sociales-jovenes>

Serrano, S. (2015, martxoak 3). Brandominus. 2020ko maiatzaren 25ean berreskuratua hemendik: <https://brandominus.com/blog/social-media/redes-sociales-caracter-valores-personas/>